

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Arakaldo



Aurkibidea

Udalerria: Arakaldo

Sarrera



Arakaldo Bizkaiaren hegoaldean kokatzen da, Nerbioi ibaiaren ibarrean, eta Bilbotik hamazortzi kilometrora. Bizkaian biztanle gutxien dituen udalerria da. Herriaren erdigunea, Elexalde-Madariagan dago eta elizaren inguruan bildutako etxe multzoak osatzen du. Udalerriak Arrankudiagarekin egiten du muga iparraldean eta ekialdean, Araban dagoen Laudiorekin mendebaldean, eta azkenik, Orozkorekin hegoaldean. Arakaldoko jarduera ekonomiko nagusia nekazaritza izan da historian zehar. Gaur egun bertako jatorrizko euskara darabilten hiztun bakar batzuk baino ez daude.

Egilea: [Aiaraldea Komunikazio Leihoa](#)

- **Biztanleak:** 97
- **Euskaldunak:** %43,47

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **1**
- Zintak: **2**
- Pasarteak: **29**
- Transkribatutakoak: **3**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **29**

Proiektuak

- Euskal Herriko Ahotsak

Hizlariak

Milagros Ginea Iruretagoiena (1936)



Bilboko klinika batean jaio zen arren, Arakaldon bizi izan da beti. Ama Zollokoa zuen (Arrankudiaga) eta aita Orozkokoa. Alaba bakarra izan da. Amak herriko kanpaiak jotzeko ardura hartu zuen eta gero Milagros bera ibili izan da urte askoan kanpai jotzen; harik eta, automatiko jarri zituzten arte. Umetan, neskak eta mutilak batera ibiltzen ziren eskolan eta horregatik mutilekin asko jolastu izan du Milagrosek. Arakaldon gauza gutxi zeukaten, taberna eta dendatxo bakarra eta frontoirik ez. Horregatik, Laudiora joateko joera handia eduki dute euren herrian. Arakaldoko bizimoduaz hitz egin genuen berarekin egon ginenean, aitarekin errekan arrantzan egiten zutenekoez eta euskararen egoeraz, besteak beste.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Iritziak

1.1. Zazpi edo zortzi seme-alaba izaten ziren lehen

- **Hizlaria(k):** Ginea Iruretagoiena, Milagros
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxazarra, Ainhoa
- **Erref:** AKD-003/003
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:03:20. **Bukatu:** 00:04:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena:** Lehen ere ez zen jende asko bizi Arakaldon, baina etxe bakoitzean senide gehiago bizi ziren. Zazpi edo zortzi seme-alaba izaten ziren familietan.

Transkripzioa

- Jende asko ez zan egongo Arakaldon, lehen bez, ezta?
- Beitu, jente asko ez zan egon, eta etse gitxi bere; baie bakotxan egon zirian, ba diñozune, zortzi edo bederatzi fameli, eta aite ta ama, beitu eizu zuk zemet zien, e... Goikirin bere, Goikirin, hango atzeko goiko etsean bere, da bizimodu bikoia, etsea, eta egon zirean baten bederatzi seme-alaba eta bestean zortzi seme-alaba, eta gero, aite ta ama, ba, beitu eizu zuk, aurek bere. Ta gero Iturrian egon zireanak bere.
- Oin baino jende gehiago, igual...
- Klaro!

2. Ekonomia eta industria

2.1. Zepillo-fabrika

- **Hizlaria(k):** Ginea Iruretagoiena, Milagros
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxazarra, Ainhoa
- **Erref:** AKD-003/007
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:06:39. **Bukatu:** 00:09:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Lantegiak
- **Laburpena:** Balmasedatik eraman zuten Arakaldora zepillo-fabrika: Zepillerea. Aurretik zentrala izandako tokia zen. Hainbat familia joan ziren Balmasedatik, langintza irakastera. Lanean hasi ziren asko neskak izan ziren.

Transkripzioa

- Eta egon da holan, ez dakit nik ba, fabrikarik, eta?
- Fabrikarik bai, zepillerea, zepillerea egon zan. Hemen lehen, lehen, gure ama defuntiak esaten euen, nik ez dakit zer zan hori fabrikea, horko, Modesto-ta bizi zena. Eta gero Balmasedatik etor zen hona zepillerea.
- Ta hor zer eiten zauen ba?
- Zepilluk eiten euriezan.
- Oin Gorostidi...
- Oin Gorostidi dauen lekun. Hori zen. Bai.
- Ta hori zuk beti ezetu dozu?
- Bai, beti.
- Eta, oin zarratute dau, klaro, oin ia ez dau.
- Oin, zepillerea hona etorri zenean bere, ze hori zepillera hori ez zan egon. Hori zentrala edo ez dakit zer zan ordun. Modesto-ta bizi zienean hor, zentrala. Ez dakit nora, nondik edo zelan emoten daurien ure edo dana dala. Eta gero etor zen horra zepillerea eta gero, oin Gorostidik deuko.
- Ta etorri zanean zepillerea zer... Jende asko hasi zen herrikoa bertan beharrean?
- Bai, herriko jente gaztea, ugeri. Ze, hortik goitik bere, etxe batetik hiru neskato hasi zien; Pildainenak bere, bi edo hiru, eta, badiñotsut, etor zienean, ta lbarretxenak bere.
- Neskak gehienak?
- Bai, neskak gehienak. Baie gero handik etor zian. Hango neskato... Fabrikea hona etor zenean, etor zan hango jentea etor zen hona irekaste hemekoeri bihar eiten. Balmasedatik etor zan jente asko hona.
- Ta erakutsi eiten eurien zelan...
- Bai, zelan behar ein. Hori, zelan behar ein, eta gero, ta gero hori bere joan zan.
- Ta non erakusten eurien hori ba?
- Ez, hango neskatoak zelan etor ziren, hango...
- Baie bertan?
- Bai, bai, bai, zelan eiten eurien zepilluek eta han. Sartu zienairi, hemeko neskatoeri, sartu zienairi eiten eutsien erakutsi, hangoak.
- Ta neskak bakarrik joaten ziren horra beharrera, ala?
- Ez, neskatok ez, mutilek be etor zien handik, e... Fameli asko etor zan handik.
- O sea ke Balmasedako jentea egongo da hamen, ez?
- Ez.
- Ez dau ia?
- Hemen egon zan. Hemen egon zien bizten, baie ia, batzuk dauz hilde eta beste batzuk dauz... Puri Puri ez dakit biziko bada, baie dau Laudion oin.

3. Herria, azpiegitura

3.1. Argia bai, baina urik ez etxean

- **Hizlaria(k)**: Ginea Iruretagoiena, Milagros
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxazarra, Ainhoa
- **Erref**: AKD-003/024
- **Iraupena**: 0:01:28. **Hasi**: 00:30:20. **Bukatu**: 00:31:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

- **Laburpena:** Beti ezagutu du argia etxean; ura ez. Patina egin zuten ura biltzeko eta etxera sartzeko, baina arazoak izan zituzten. Lehenago kantinekin joaten ziren iturrira.

Transkripzioa

- Eta etxean euki dozue beti ure eta argie?
- Argie bai. Nik argie ezetu dot beti. Ure ez.
- Ure ez. Ure noz ekarri zan hona?
- Ure, guk ein gendun, guk ein gendun hor patin bet, patin bet ein gendun, eta metro gitxitara urten doskun urek, metro gitxitara. Baie gero goien imin gendun depositu bet aukiteko ure suetean, ze hau ez zan suetea lehen. Suetea zan, on zan beste aldean. Eta, imite ordun bonbea, ez dakit zer bota eutsien juntetan, juntak eiteko, eta parau jakun ganean tela bat, tela bat patineri... Eta zan ure ona, ze urtete ordun analizau ein gendun, baie gero ha sartute ordun txarritu zen guztiz, ure. Eta gero, ba, oin iminte arte, herrin iminte arte, gero.
- Eta noz ipini zen herrien, ba?
- Nik ez dakit zemet urte dan, pilo bat, ez? Idearik bez.
- Senarra: Berrogeta hamar urte baino gehidxau.
- Ze lehen joaten gintzen [ba zu]. Joaten zintzen kanpaia josten eta kantine, kantin bi eskun ure ekarten [...] etxerantza. Osea ke...

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Etxe gutxi baina familia handiak (AKD-003/005)

Etxe gutxi egon arren, familia handiak bizi ziren haietan. Amama eurekin bizi zen etxean; hiru osaba izan zituen Miraballesen, beste batzuk kanpoan.

2. Etxe bakoitzak bere izena (AKD-003/006)

Arakaldo txikia da. Etxe bakoitzak bere izena du, eta ez dago auzorik; goiko aldekoa bereizten du. "Etxetxu" da euren etxearen izena. Inguruko mendiak: Goikogane, Untzueta,

3. Eskolara erdaraz jakin barik (AKD-003/008)

Eskolara joan zenean ez zuen jakin berba bat ere erdaraz. Neskak eta mutilak denak batera, adin guztietakoak. Entziklopediarekin ikasten zuten. Astean behin, neskek josten ikasteko saio berezia zuten.

4. Dena erdaraz (AKD-003/009)

Arrankudiagako abadea joaten zen eskolara dotrina irakastera. Gogorrek ziren abadeak. Dena zen erdaraz: eskolan, dotrinan, elizan. Latinez meza eta sermoia gazteleraz.

5. Euskaraz eginez gero, gutxiago kobratu (AKD-003/010)

Gurasoek eta amamak bazekiten erdaraz. Amama neskame joan zen Laudiora eta han berehala ikasi zuen erdaraz, mehatxupean. Euskaraz egiten zuen hitz bakoitzeko soldatetik dirua kenduko ziotela esan zioten.

6. Etxean bakarrik euskaraz (AKD-003/011)

Etxean dena euskaraz; bestela erdaraz. Ume artean ere erdaraz egiten zen; ikaskideak erdaldunak ziren.

7. Amamari abuela (AKD-003/013)

Amamari abuela esaten zioten. Amandrea edo amona hitzen erabileraz ari dira.

8. Mutilekin olgetan (AKD-003/014)

Mutilekin haien jolasetan ibiltzen ziren. "La pelota envenenada" izeneko jolasa azaltzen du. Txirringolea zer zen ere azaltzen du. Frontoirik ez zegoen bere haurtzaroan.

9. Aitarekin errekan peskan (AKD-003/015)

Txikia zela, erreka oso garbia zen. Aitarekin joaten zen arrantzan: loinak, barboak, aingirak, karramarroak, kaskailuak eta abar arrantzatzen zituzten.

10. Fabrikek kutsatu zuten erreka (AKD-003/016)

Fabrikek zikindu zuten erreka. Behin ura gorri bajatu zen eta amarengana joan zen Milagros odolez beteta zegoela esatera.

11. Errekan arrantzan (AKD-003/017)

Errekan, arrantzan erabiltzen zituzten tresnak: esparbela, kanabera, nasa edo butroiak eta abar. Errioxar batek egin eta saltzen zituen. Butroia zer zen azaltzen du.

12. Errekako arrainak desagertu (AKD-003/018)

Kanpotarrak etorri ziren eta trasmailua ekarri zuten. Esparbela sare biribila zen eta trasmailua luzetara zabaltzekoa. Orduan amaitu ziren arrainak, asko harrapatzen zuten eta.

13. Errekako karramarroak (AKD-003/019)

Garai bateko arrainak erabat desagertu ziren. Karramarroak ere bazeuden; oraindik badaude baten batzuk. Eskuz harrapatzen ziren.

14. Loinak albardatuta (AKD-003/021)

Kanaberak arrantzako aparailuen dendan erosten zituzten. Arrainari tripa eta burua kenduz gero, beste edozein arrainen moduan jaten zen. Loina da finena jateko; arrautzatzatuta ondoen.

15. Aingirak harrapatu eta jan (AKD-003/022)

Aitak bazekien zein harripetan egoten ziren aingirak; eta tenedore moduko bat zuen haiek harrapatzeko. Oso gozoa da aingira. Zuritu egiten da eta saltsan edo frijiturik jaten da.

16. Gorbeia aldeko erreketara arrantzan (AKD-003/023)

Aitak ondo ezagutzen zituen inguruko errekek, eta Gorbeia aldekoetara ere joaten zen arrantzan. Milagros etxe ingurukoetan aritzen zen.

17. Kanpaien ardura (AKD-003/025)

Amaren ardura izan zen kanpaiak jotzea; Haren ardura hartu zuten senar-emazteek. Egunean hiru aldiz: goizean, eguerdian eta gauean. Eguerdian, hamabietan. Sokatik tira eginda jotzen ziren. Ezberdinak ziren prakadunaren (gizonezkoaren) edo gonadunen (andrazkoaren) heriotzaren iragarpenaren kanpaiak. Suteetan eta uholdeetan ere jotzen ziren.

18. Eskolatik bordatzera (AKD-003/027)

Hamabi urtera arte joan zen eskolara, eta gero bordatzen ikasten hasi ziren. Hamalau urtera arte zen eskola, baina askok ez zuten amaitzen.

19. Lehenago beheko sua, gero txapa (AKD-003/028)

Lehenagoko sukaldean beheko sua zuten. Geroago txapa jarri zuten. Zorua harrizkoa zen eta bazter batean zegoen beheko sua. Mokotxen (mukurren) artean egur txikiak jarrita egiten zen sua.

20. Basora egurretan (AKD-003/029)

Basotik ekartzen zen egurra. Herriko basoak eta familiarenak zeuden. Herriko basoetan herritarrek landatu zituzten pinuak, bakoitzak bereak; gero, dena erre zen. Pinuaren aurretik artea eta txilarra zeuden. Abereentzako azpigarriaren bila joaten zirenean, gainean egurra ekartzen zuten.

21. Sukaldeko ontziak eta abar (AKD-003/030)

Ontziak sutan jartzeko, trebera eta laratzua (laratza, kate handi bat gantxo batekin) zituzten. Esnea egosteko ontzia kalderillea zen. Lapikoa erabiltzen zen bestelakoetarako. Espartzua eta Chimbo edo Lagarto xaboiak erabiltzen ziren garbitzeko.

22. Surtako hautsa lixibaren ordezt (AKD-003/031)

Su(r)tako hautsa baratzera botatzen zuten. Auzoko etxeok, aldiz, lixibaren lana egiteko erabiltzen zuten.

23. Baserriko labea eta ogiak (AKD-003/032)

Parrila bat izaten zuten sagarrak edo madariak erretzeko. Ogia eta artoa egiteko, labea zuten kanpoan. Erabat lehortu gabe egonez gero, labean lehortzen ziren artaburuak erotara eramane baino lehen. Ogia, artoa eta jaika (legami gabeko artoa) egiten zen. Esne egositane zopak egiteko erabiltzen zen jaika. Ogiak zortzi egun edo, irauten zuen.

24. Berakatz-zopa eta jaika-zopak (AKD-003/033)

Jaika-zopak edo talo-zopak gosaltzen zituzten. Taloa berotan esne beroarekin hartu behar da. Zenbaitetan, baratzxuri-zopa zen afaria. Baratzxuri-zopa gozoena arto eta ogiarekin egindakoa da.

25. Edatera, tabernara (AKD-003/034)

Amamak herpesaren mina arintzeko koñaka (matarratas) edukitzen zuen. Tabernan edaten zen, ez etxean. Auzoan egiten zen txakolina, baina Milagrosen etxean ez. Pitikina deitzen zion auzokoak egiten zuen nahaste bereziari: prentsako mahats soberakinekin eta sagarrekin egindako edaria. Gizonak joaten ziren tabernara.

26. Gizonen kontua zen tabakoa (AKD-003/035)

Gizonezkoek erretzen zuten. Tabakoa landatuta omen zegoen inguruan. Milagrosen aitak "Cuarterones" deitzen zirenak erosten zituen eta berak prestatzen zituen erretzeko.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2024-05-19

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com